

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

HYDROS Kodea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLOA/IKASGAIA: Natur zientziak

ARLOA/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Matematika

Ordubeteko escape room motako abentura-joko baten bidez, ikasleek egoera kritiko bati egin beharko diote aurre: Ur hornidura eten egin da... eta urik gabe gaude! Denbora kontra doan erronka honetan, gelak benetako esperientzia murgiltzaile bihurtuta, gertatutakoa ikertu eta konponbidea aurkitu beharko dute.

Trebetasun fisikoei eta adimen-erronkei aurre eginez, sormena, arrazoitze gaitasuna eta talde-lana praktikan jarriko dituzte misioan aurrera egiteko. Pista bakoitzak azken helburura hurbilduko ditu: hornidura-sarea berrezartzea ahalbidetuko duen kode sekretua aurkitzea. Denbora aurrera doa eta segundo bakoitza garrantzitsua da. Ura garaiz berreskuratzea lortuko al dute?